

# Eraikuntza

## ERAIKUNTZA

### La Mola-ko Gotorlekua: Jasangarritasuna Ondare Historikoan

Mahoiko portuan (Menorca) dagoen Isabel II.aren Gotorlekuaren Plan Zuzentzailea garatzen ari da Tecnalia, multzoaren erabilera-erregimen egokia lortzea ahalbidetuko duen plangintza-tresna izan dadin eta La Mola delakoaren ustiapena eskaintza

turistikoan txertatu ez ezik, berorren kontserbazioa ere bermatuz. Proiektuaren helburua, multzoaren Jasangarritasuna lau alderdiren arabera ziurtatzea datza, hau da: gizarte, ekonomia, ingurumen eta kultura alorreko alderdien arabera.




### Materialen Fabrikatzaileei Kyotoko Protokoloa betetzeko laguntzea

Kyotoko Protokoloa bete behar izatearen ondorioz zuzen gisa, Tecnaliak, Ziurtapen eta Saillkapen jardueraren barruan, eraikuntza-produktuen fabrikazio-prozesuetan ainerako igorpenetan dagoen CO<sub>2</sub> kopurua ezartzen du, eta bereziki, zementu-enpresek eta zeramikazko

produktuen enpresa fabrikatzaileek igortzen dutena, parametro hau ahalik eta zehatzen ezartze aldera, jakin baitakigu, fabrikatzaileentzat behar bezalako ezarpenak suposatzen dutena.

### Sute-simulazio berritzailea, EITBren egoitza berrian

Tecnaliak Suteetako Segurtasun Ingeniaritzaren inguruan egindako proiektua, metodo alternatibo garrantzitsuen bidez burutu da. Metodo berri horiek, suteen kontra instalatutako babes-sistemen araudiak ezarritako segurtasun-mailak lortzea eta bertan daudenen bizitzari eustearekin bateragarriak diren baldintzak, eta beraz, horien ebakuazioa, egiaztatzen dute, kalkulu-tresna aurreratuen eta Suteetako Egiatzko Entseguaren (Ke Bero Garbia EHCL LABEIN© Entsegua) bitartez.



## Altzairuan oinarritutako sistema berriak etxebizitzak eraikitzeko


NUSACC proiektuak, ondoko ezaugarriak dituzten etxebizitza-eraikuntzen fatxadetarako sistema industrializatua proposatzen du:

- estandarizazio malgua,
- aurrefabrikazio aurreratua, instalazioak eta eraikuntza-sistemak txertatzea, eraikuntzari buruzko hausnarketa eta eraikinetako energia-eraginkortasuna hobetzearen alde egitea.

Sektoreko eragile garrantzitsuek, horren bideragarritasuna aztertzen lagundu zuten: ekoiztutako sistema bolumentrikoetan aplikatzea, lantegiko fabrikazioko automatizazio lehiakorrenako estandarizazio malgua erronkatzat izanik.



## Eraikuntzako energia-portaera hobetzeko metodologiaren garapena



Garrantzia bizigarritasunaren, eraikuntza-prozesuen eta energia-eraginkortasun handiagoaren hobekuntzari emanez, zaharberrikuntza jasangarriko prozesuak optimizatzea ahalbidetuko duten gutxienezko arau eta gomendioak garatzen ditu DEMOHOUSE proiektuak. Marko honetan, eko-zaharberrikuntzaren inguruko jarduerak gauzatu eta, Europa mailan, birgaitze-prozesuetan energia-eraginkortasuna hobetzeko dauden teknika hoberenak aplikatzen dira.

## Etorkizuneko eraikuntza-materialak

Teknialiak, berrikuntzaren aldeko apustua egiten du eraikuntza-materialen esparruan, negozio-aukera berriak sortze aldera, eta material arinagoak, eraikuntza-jardueran errazago erabiltzekoak eta funtzio anitzak dituztenak sortzeko helburuarekin, ezagutza berria eta teknologia adimentsuak bideratzen

dituen CENIT "Prometeo" proiektuan esku hartuz. Oinarri gisa, produktibitatea, kalitatea, segurtasuna, energia-eraginkortasuna eta bizigarritasuna bezalako alderdiak hobetzea ahalbidetuko duten material organikoak eta zeramikoak erabiliko dira.

